

Sarrerria

Mutrikuarrez idatzi nahi izan degunian, eta hau askotan gertatu izan zaigu, geure buruari galdetu izan diogu: zela egin ? Eta beste milla galdera: Etxekuekin batuan egin behar det ? eta lagunekin ? Eta herriko gorabeheraz ? , eta ... eta ... etabar luze bat.

Holako galderei erantzuteko, eta baitxa ere mutrikuarra, geuria, mermatzen jua ez daixan, ezta okertzen, nahasten eta azkenian gatz gabeko hizkera bat bihurtzen, lanian hasi gera gai hau lantzen juateko asmuarekin.

Urteak aurrera doazela gero eta hobeto ikusten da, hizkuntza batu sendo bat badegula, eta tokixan tokiko euskeriakin osatzen jua bihar dala, tokiko hitzekin, esaerekin, aldaerekin ... Hitzunok ahalik eta hizkera aberats, adierazkor, errazen eta berezkoenian hitz ein dezagun, orain arte bezela, eta gure aurrekuak ondotxo ein izan duten bezelaxe.

Normalian eitxen degun batbateko hizketa honek idatzixan ere badauka bere lekua geure herriko eginkizunetan. Baiña idatzixa beti da idatzixa, eta arauak ditxu. Horregaitxik beharrezkua ikusi degu oinarritzko idaztarauak argitaratzia herriko euskera jasuan idatzi bihar degunerako, badaukagu gaiñera, gaur, mutrikuarrok nun idatzi: "Kalaputxi" aldizkarixan, "Galanixan", ...

Beste herrixetan ere holako gauzak egin ditzuzte, esate baterako Eibarren, guk geurera ekarri nahi izan ditzugu arauok, jakiña, ortografi erreferentziak Euskera Batuarenak dira, taldean eztabaidatuak daude eta herritarron iritziak jasotzeko ahalegiñetan ibilli gera. Hala ere finkatzea ez da gure helburua, prozesu bat zabaltzea baizik, beraz proposamena besterik ez da.

Hara hemen ba, gure hondar alia.

Hitzak, esaerak, kantuak eta istorioak jasotzeko prest gaude. Jarri zaitzez gurekin harremanetan.

Lantaldia: ***Hizkeria Lantzen***

Laguntzaillia: ***Mutrikuko Udala***

eposta: **ixaixa** [a bildua] **euskalnet.net**

Herriko euskeran idazteko proposamenak

1. H

Batuan bezela: *haundixa, mahaixa, hi, harrua, hemen, hamar, harri, mehia, behixa, behekoa, ...*

Leku izenetan toponimian zehaztuta dauden bezela: *Aritzeta, Arriluze, Miruaitz, Ondarbeltz, ...*

2. S / Z

Gaur egunian hizketan S eta Z-ren arteko bereizketarik inork gitxik eitxen badegu ere, idazteko, behar den bezela bereiziko ditzugu: *sasoia, zikiña, zapua, zerua, sorgiña, sasixa, ...*

3. TZ / TS

Goiko kasuan bezela, ahozkuian ez da bereizketarik eitxen, dana da TZ. Hala ere, idatzixan bereizi egingo ditzugu: *beltza, mahatsa, etzi, eutsi, etsipena, hazi/hasi, ...*

4. LL

i + l tokatzen danean, “**ill**” idatziko degu: *dabilleanian, milla, hillabetia, maillubixa, biribilla, ...*

Baiña hitz bukaeretan ez da idatziko “**ill**”

hil eta ez hill

sail eta ez saill

dabil eta ez dabil

5. Ñ

i + ñ gertatzen danean, “**iñ**” idatziko degu: *oiña, gaiñian, baiña, gaztaiña, suiña, erraiña, ...*

Hitz bukaeretan ez da idatziko “**iñ**”

.ein eta ez eiñ ...

hain eta ez haiñ

zein eta ez zeñ

Izen propioak, ohi diran bezela: *Pello, Oñati, Apain, Samikolla*

6. TX / TT

i + t gertatzen danean, **TX** edo **TT** idatziko degu.

Ditxugu (dittugu), baitxa (baitta), itxo (itto), itxurrixa (itturrixa), badakitx (badakitt)

Gure hizketan “TX” oso markatua esaten da eta joeria daukagu holaxe idazteko. Dana dala, Deba arruan “TT” idazteko joeria dago, eta gaiñera Euskera Batutik hurriago dagoenez, pentsatzen degu ez dagoela eragozpenik bixak erabiltzeko

7. Bokal arteko “d” eta “r”

Ahozkuari “d” “r” bihurtzen degu:

- edarixa / erarixa.
- Zer moduz ? / Zer moruz ?

Baiña idazterakuan “d” idatziko da.

8. Bokal arteko “g”

Hitz eitzterakuan askotan ez degu “g” erabiltzen, baiña idazterakuan hitza dan bezela erabiliko degu:

- eon / egon
- nausi / nagusi
- neua / negua

Salbuespena “egin”: ein, eitxen, eitxeko, eitxekotan, ...

9. “EZ” hitza

Euskera Batutik hurre ibiltziak, hitzak Batuan bezela banatzia dakar

<i>Kasua</i>	<i>Esateko Modua</i>	<i>Idazteko Modua</i>
Ez + b	ezpaletor	Ez baletor
Ez + d	eztator	Ez dator
Ez + z	etzan	Ez zan
Ez + l	eleuke	Ez leuke
Ez + n	enijua	Ez nijua

10. AGO / EGI partikulekin sortzen diren kontrakziuak

<i>Kasua</i>	<i>Esateko Modua</i>	<i>Idazteko Modua</i>
gehiago / gehiegi	geixo / geixei	gehix(ag)o / gehixe(g)i
gutxiago / gutxiegi	gitxio / gitxiei	gitxi(ag)o / gitxie(g)i
gorriago / gorriegi	gorrixo / gorrixei	gorrix(ag)o / gorrixe(g)i
ilunago / ilunegi	illuno / illunei	illun(ag)o / ilune(g)i
zaharrago / zaharregi	zaharro / zaharrei	zaharr(ag)o / zaharre(g)i
gazteago / gazteegi	gazio / gaxtiei	gaxti(ag)o / gaxtie(g)i
txikiago / txikiegi	txikixo / txikixei	txikix(ag)o / txikixe(g)i

11. “Eta” hitza

<i>Esateko Modua</i>	<i>Idazteko Modua</i>
Aitxa ta ama	... eta ...
Berreun da bat	... eta ...
Zazpi txa bost (pelotan)	... eta ...
Zortzi txerdiak (ordua)	... eta ...

12. -z gero = ezker

Batuan etorri **gero**, hartuz **gero**, ..., idazten badira ere, mutrikuarreraz etorri **ezker**, hartu **ezker**, ..., idatziko degu.

13. Hitz amaiera batzuen idazteko moduaren gaiñian

a+a = ia : gauza / gauzia, andra / andria ...

Baiña esan eta idatzi berdin: ama, amona, aitxa, aitxona, alaba, ...

e+a = ia : seme/semia, urre/urria, ...

e+e = ie : senide/senidien, alkate/alkatien, ...

e+o = io : emakumeon / emakumion, gazteok/gaztiok, ...

i+a = ixa : mendi / mendixa, ogi/ogixa, asti / astixa, ...

i+e = ixte: animalietan/animalixetan, belarrietan / belarrixetan, ...

i+o = ixo: herri/herrixok, behi / behixok, ...

o+a = ua: guraso/gurasua, joko/jokua, ...

o+o= uo: harrook/harruok, astook/astuok, ...

Ohar Orokorra

Erreferentzixa nagusixak emate aldera, zera esan biharra dago: hamen ematen diran arauetatik aparte ere egon leikezela gauza aitxagarri gehixago. Baiña gure asmua, kasu nabarmenenak argitaratzia izan da. Aditza eta Deklinabidia dala eta sortzen diran ortografi arauak berriz, Josu Larrañagak mutrikuarreraren azterketa lana amaitzen duenerako utzi degu.

Mutrikuko Hitz Batzuk

txo !

- Itxasontziko txikienari esaten zitzaien
- Edozeiñi deitzeko erabiltzen da

tretza

- Apareju mota bat amu askokua
- Bisigutarako erabiltzen da gehixenbat

maluta

- Arraiñetako engaiñu klase bat

zanga egin

- Salto egitea uretara buruz-behera

teinkaria

- Teink egin

tarrataria

- Tarrat egin, erropa apurtu

part

- Apurtu

krakaria

- Krak egin

txirrist edo laprast egin

- Nahigabeko irristada

burrundaria

- Neurritz gaiñeko zaratia
- Egoekin ateratzen duten zaratia: kulumifñuak, erleak, eta beste ...

tramaiñarrua

- Itxasotik ura hartu edo xurgatu egiten da, eta gora igoten da biraka

galanixa

- Batenbatek bere burua nabarmentzeko hartzen duen ohiz kanpoko jokaeria. Normalian umeen artian.

kalaputxi

- Tximeleta